*Este Sendero de Pequeño Recorrido nos permite disfrutar de un paseo sin desniveles por el entono más cercano al núcleo de Otxandio. Hayedos, calzadas, arroyos, ermitas y alguna curiosa estela forman parte del rico patrimonio naturalístico-cultural que encontraremos a nuestro paso.*

## Partimos de la

**Plaza Nagusia**, frente al ayuntamiento, donde encontramos un panel informativo sobre los senderos del municipio. En el cantón de la plaza giramos a la derecha para descender (junto con los PR-BI 50 y 51 y el GR 38) por la calle Uribarrena, siguiendo el viejo trazado de Camino Real. Caminamos por el viejo Via Crucis que se dirige hacia el calvario cercano a la ermita de SanRoke.

Un poco antes de alcanzar este pequeño templo abandonamos la vieja carretera para acceder a mano izquierda al estrecho sendero que nos conduce hasta el viejo hayedo de Sanrokeoste. Tras cruzarlo,la senda desemboca en la variante de Otxandio. Debemos cruzarla y continuar por la vía más evidente hasta adentrarnos en los hayedos de Abitxu y Olazar. Una serie de puentes nos ayudarán a salvar las aguas del río **Oletaerreka**, que una y otra vez se va cruzando en nuestro camino.

Nada más salvar el segundo puente abandonamos el trazado del GR 38 para continuar por la izquierda, paralelos al curso del Oleta. Caminamos entre hayas y robles, por **Olazar**, mientras disfrutamos del tranquilo paraje. Alcanzamos un nuevo puente, que atravesamos para seguir de frente hasta dar con la carretera de Oleta. A la izquierda, un bello puente de piedra singular se alza sobre el al arroyo de Amezola. Cruzamos la carretera y continuamos aguas arriba, obviando los ramales de la derecha, hasta que el sendero nos obliga a cruzar el regato.

Entre plantaciones de diversas coníferas llegamos a un nuevo cruce. La senda de la izquierda regresa a la villa, por la zona de Mainondogarai. Pero nosotros seguimos por la derecha paralelos al vivero, hasta alcanzar el hayedo donde encontramos la vieja **calzada** de Otxandio a Oleta (GR 123). Caminamos por la vía empedrada unos 100 metros, hasta el siguiente cruce, donde giramos a mano izquierda para atravesar el hayedo de **Illuntxo**. La senda desemboca en una pista de tierra, donde nuestro sendero se cruza nuevamente con el GR 38. Debemos continuar de frente hacia **Kurutzalde**, donde encontraremos una curiosa estela (s.XIX). Llegando a este punto podemos regresar a Otxandio por la izquierda y acceder a Elexabarri pasando por el barrio de Kerexara o continuar el itinerario por el camino de la derecha en dirección al barrio de Morgaola.



Caminamos entre fincas y plantaciones de coníferas. Ignoramos los cruces secundarios y continuamos de frente hasta que nuestro camino desemboca en la pista que desciende desde Itza (PR-BI 50). Giramos a la izquierda y descendemos hasta un nuevo cruce, donde el otro PR continúa por la derecha mientras nosotros seguimos de frente. Tras salvar un bello y antiguo puente sobre el río Urkiola, llegamos al barrio de **Morgaola**. Nuestro sendero cruza la barriada para continuar hacia Otxandio, nuevamente por el Camino Real.

Alcanzamos el barrio de **San Antonio**, donde se encuentra la ermita del mismo nombre. Según la tradición los vecinos se unían frente a esta ermita antes de iniciar su peregrinación a Urkiola. Continuamos en dirección al Casco urbano pasando junto a la ermita de **Elexabarri** y el viejo crucero de Urigoiena, uno de los hitos que marcaba la entrada a la villa. Desde Urigoiena accedemos a Artekale, pasando previamente junto a la plaza Andikona. Es éste un lugar emblemático para los vecinos de Otxandio. En él murieron un gran número de vecinos en el primer bombardeo que sufrió nuestro territorio (1936). Antiguamente este curioso enclave albergó uno de los lavaderos municipales, a la orilla de un pequeño regato que cruzaba la zona. El Camino Real nos dirige nuevamente a la Plaza Nagusia, punto de partida y llegada de nuestro itinerario.




GORBEIALDE
euskadi atsegin handiz
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAKUNTZA
FEDERACION BIZKAINA DE MONTAÑA
MIRU-GAIN

# otxandio



otxandio
olazar
illuntxo
morgaola
otxandio

**PR-BI 52**




## PR-BI-52

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | Plaza Nagusia | 0 km | 6 | Kurutzalde | 3,9 km |
| 2 | Oletaerreka | 1 km | 7 | Morgaola | 5,2 km |
| 3 | Olazar | 1,3 km | 8 | San Antonio | 3,6 km |
| 4 | Oletako galtzada | 2,6 km | 9 | Elexabarri | 6 km |
| 5 | Illuntxo | 3,2 km | 10 | Andikona | 6,2 km |
| | | | | **guztira - total** | **6,4 km** |

*Ibilbide laburreko bidezidor honek Otxandio inguru hurbileko parajea emango digu ezagutzera, ia desnibelik gabeko ibilaldian. Pagadoiak, galtzadak, errekasto eta hilarri bitxiak dira, besteak beste, bidean aurkituko dugun natura eta kultura ondarearen parte bat.*

## Plaza Nagusian

emango diogu hasiera ibilaldiari, udaletxearen aurrean. Bertan aurkitzen dugu Otxandio eta bere ibilbideei buruzko informazio-panela. Beste PRekin eta GR 38arekin batera, Errege bidean behera egingo dugu, Uribarrena kaletik. Kalearen mugan iturri eta bidegurutzea aurkitzen ditugu. Urkiola erreka gaineko zubia pasatu eta San Rokerantz goaz, Via Crucis-etik.

Ermitara heldu baino 100 bat metro lehenago Errege bidea albo batera utzi eta ezkerretara jaiotzen den bidezidorretik jarraituko dugu, Sanrokeosteko pagadoira helduz. Otxandioko saihesbidea zeharkatu eta aurrean dagoen estratatik jarraituko dugu, larre artean, harik eta Abitxu eta Olazarreko pagadietara heldu arte. Bidean **Oletaerreka** zeharkatu beharko dugu behin eta berriro, horretarako herriak egokitu berri dituen zubiak erabiliz.

Bigarren zubia pasatu eta berehala, eskuma aldera joko du GR 38a, Mirugain aldera. Guk, berriz, aurrera egingo dugu, **Olazar**reko pago motzen baso ederrean zehar, Oleta errekaren ibilguari jarraituz. Hirugarren zubira heldu eta hau ere zeharkatu egingo dugu, zuzen jarraitu eta Oletara doan errepidera helduz. Errepideak Amezola erreka gainetik pasatzen den puntuan harrizko zubi eder bat aurkituko dugu. Baina guk Oletako bidea gurutzatu eta aurrean dagoen pistatik jarraituko dugu, eskumara jaiotzen diren bideak alde batera utziz, harik eta Amezolaerrekarekin topo egiten dugun arte. Zubitik zeharkatuko dugu errekastoa.

Konifera landaketa artean goaz hurrengo bidegurutzeraino. Ezkerretara joz gero, Otxandiora bueltatuko ginateke, Mainondogaraitik. Baina PRak eskumatik jarraitzen du, mintegiaren paretik, Otxandiotik Oletara zihoan **galtzadara** (GR 123) heldu arte, Pagadiaren sarreran. Harrizko bide zaharretik goaz orain, 100 bat metroz, hurrengo bide banaketaraino. Ezkerrera joko dugu bertan, **Illuntxoko pagadoia** zeharkatuko duen xenda hartzeko. Zidorra pista batera heltzen da, non ezkerrera joko dugun hurrengo gurutzeraino. Berriz ere GR 38arekin topo egingo dugu, baina hau Urkiolarantz doa eta guk aurrera egin behar dugu, **Kurutzalde**ra, non hilarri bitxi bat aurkituko dugun. Puntu honetara helduta, Otxandiora bueltatu gaitezke Kerexara auzotik Elexabarrira helduz, edo PRtik jarraitu dezakegu, Morgaola auzorantz.

Landa eta konifero landaketa artean goaz, pista nagusitik, albo batera eta bestera jaiotzen diren pistei kasurik egin gabe, harik eta PR-BI 50arekin bat egiten dugun arte. Bi PRak batera joango dira 250 bat metroz, hurrengo bidegurutzeraino. PR-BI 50ak eskumarantz jarraitzen du, baina guk aurrera egin behar dugu, Morgaola auzorantz. Urkiolaerreka zeharkatzen lagunduko digu harrizko zubi eder batek, auzunearen sarreran. Etxe eta armarri bitxiei so, berehala gurutzatuko dugu **Morgaola**.

Auzo bidea Errege Bideraino heltzen da. Bide historikoari jarraitu besterik ez dugu urira bueltatzeko. Baina lehenik **San Antonio** auzoa zeharkatuko dugu, izen bereko ermitaren zaintzapean agertzen dena. Bertan biltzen ei ziren San Antonio egunean Urkiolara erromerian joaten ziren auzotarrak. Ibilaldiak Errege Bideari jarraituz uri zaharberrituan sartuko gaitu. **Elexabarri** ermita aurkituko dugu lehenik, Urigoiena kaleko muga-gurutzetik gertu. Urira sartu eta historia handiko etxe artean **Andikona** plazara helduko gara. Hau izan zen Euskal Herrian bonbardatu zuten lehen tokia, 1936. urtean. Andikonan antzina Otxandioko beste latsagietako bat egon zen, garai hartan bertatik pasatzen zen errekastoaren erriberan. Artekale zeharkatzea besterik ez dugu Plaza Nagusira heltzeko, ibilaldiaren amaierara.

